| 2018KO IRAILAREN 28AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXO KIROLAKEK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA | ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL CONSEJO RECTOR, EL DIA 28 DE SEPTIEMBRE DE 2018 |
|---|---|

| LEHENDAKARI ERAGINKORRA | PRESIDENTE EFECTIVO |
|---|---|

P.N.V. – E.A.J. GONZALEZ PEREZ, Alvaro Jn.

| BERTARATUTAKO BOKALAK | VOCALES ASISTENTES |
|---|---|

| | |
|---|---|
| GUK GETXO | ANDOLLO GONZALEZ, Susana and. |
| P.P. | ANDRADE AURRECOECHEA, Eduardo jn. |
| P.N.V. – E.A.J. | ARREGI MARTINEZ, Joseba jn. |
| P.N.V. – E.A.J. | CORIA YANGUAS, Elena and. |
| P.P. | COS YAÑEZ, Susana and. |
| P.N.V. – E.A.J. | EIGUREN ALBERDI, Keltse and. |
| EH BILDU | GUIJARRUBIA GARCIA, Nerea and. |
| P.P. | IBABE BOTELLA, Miguel jn. |
| P.N.V. – E.A.J. | ITURBE MENDILIBAR, Koldo jn. |
| P.S.E./EE | LANDA ARTECHE, José Luis jn. |
| GUK GETXO | OLASO GARCIA, Enrique jn. |
| GUK GETXO | PRADA OLLETA, Enrique jn. |
| EH BILDU | RODRIGUEZ LARRINAGA, Ibon jn. |
| CIUDADANOS | SAINZ ROBLES, Santiago jn. |
| P.N.V. – E.A.J. | URIARTE GOROSTIAGA, Ignacio jn. |

| BEHIN-BEHINEKO GERENTEA | GERENTE ACCIDENTAL |
|---|---|

MIÑAMBRES AMEZAGA, Aitor jn.

| GONBIDATUTAKO LANGILE TEKNIKOAK | INVITADOS PERSONAL TÉCNICO |
|---|---|

ZABALA LASA, Gorka jn.

| AZTERGAIEN ZERRENDA | ORDEN DEL DIA |
|---|---|
| -2018ko uztailaren 17ko ohiko bilera akta onartzea, hala badagoiko. | -Aprobación si procede, del acta del Consejo Rector ordinario del 17 de julio de 2018. |
| -204/2018ko Lehendakaritza-ebazpenaren kontu ematea; horren bidez, 325.000,00 €-ko kreditua egokitzea onartu da. | -Dación de cuenta de la resolución de Presidencia nº 204/2018, por la qu ese aprueba una habilitación de crédito de 325.000,00 €. |
| -247/2018ko Lehendakaritza-ebazpenaren kontu ematea; horren bidez, 130.000,00 €-ko kreditua egokitzea onartu da. | -Dación de cuenta de la reesolución de Presidencia nº 247/2018, por la qu ese aprueba una habilitación de crédito de 130.000,00 €. |
| Informazio orokorra | Información general |
| Galde-eskeak<br>▪ EH Bilduk galdera 26195 zenbakiarekin Getxoko Udalaren erregistroan sartuta.<br>▪ EH Bilduk galdera 26197 zenbakiarekin Getxoko Udalaren erregistroan sartuta. | Ruegos y preguntas<br>▪ Pregunta de EH Bildu con registro de entrada del Ayuntamiento de Getxo nº 26195<br>▪ Pregunta de EH Bildu con registro de entrada del Ayuntamiento de Getxo nº 26197 |

Getxon, 2018ko irailaren 28an, arratsaldeko 15:30ean, ohiko bileran bildu da Zuzendaritza Batzordea, Santa Clarako Batzar Aretoan (Getxoko Udaletxea), goian aipatutako pertsonak batu direlarik.

En Getxo, a las 15:30 horas del día 28 de septiembre de 2018 se reúne en sesión ordinaria, en la Sala de Comisiones de Santa Clara (Ayuntamiento de Getxo), el Consejo Rector con la asistencia de las personas que arriba se relacionan.

148.- ZUZENDARITZA BATZORDEAK 2018KO IRAILAREN 28AN EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

148.- APROBACIÓN SI PROCEDE, DEL ACTA DEL CONSEJO RECTOR ORDINARIO DEL 17 DE JULIO DE 2018

Lehendakaria: ez badago inolako eragozpenik, akta aho batez onartutzat emango dugu.

Presidente: Si no hay ninguna cuestión, la damos por aprobada por unanimidad de los presentes.

Ibon Rodriguez: Aktan zerbait oso bitxia ikusi dugu, gure ustez zuzendu beharrekoa. Euskaraz hitz egiten dugunean, parentesi mordoa jartzen dira.

Ibon Rodríguez: En el acta hemos visto algo muy curioso y que creemos que debe ser corregido. Cuando hablamos en euskera vemos que esta lleno de parentesis.

Beraz, gure hitzak zatika agertzen dira, zatituta eta parentesi eta puntu eta jarrai askorekin. Ez dakit zerbait gaizki idatzi den, gaizki grabatu den edo gaizki itzuli den. Ez dakit zein den arazoa.

Por lo tanto, aparecen nuestras palabras a trozos, divididas y con muchisimos parentesis y pntos seguidos no sé si es algo que se ha redactado mal, si se ha grabado mal, si se ha traducido mal. No sé cual es el problema.

Lehendakaria: Ez, bi kasutan agertzen da, bai euskaraz, bai gazteleraz. Ziur aski, transkripzioa egiterakoan, grabazioan esandakoa ez zen ulertuko. Baina ez da soilik euskaraz gertatzen.

Presidente: No, está en los dos casos, en euskera y en castellano. Será probablemente que en la transcripción no se ha entendido lo que se decía en la grabación. Pero no está solo en euskera.

Ibon Rodríguez: Ez dut esan bakarrik euskeraz dagoenik, baizik eta guk euskeraz hitzegiten dugunean Aktan ez dela gure hitza jasotzen. Eta hori ikusten da..

Ibon Rodríguez: No he dicho que esté solo en euskera, sino que cuando nosotros hablamos en euskara. Que en el acta no se recogen nuestras palabras. Y eso se ve.

Lehendakaria: esan nahi dut transkripzioan ez zela ulertuko zer esaten zen. Baina ez euskaraz dagoelako, ez delako ulertu baizik.

Presidente: Lo que quiero decir es que en la transcripción no se habrá entendido lo que se decía. Pero no porque sea en euskera, sino porque no se ha entendido lo que se decía.

Ibon Rodríguez: Hori begiratzeko esaten dugu.

Ibon Rodríguez: Decimos que se mire eso.

Lehendakaria: gainera, ez baduzue onartutzat eman nahi edo berrikusi nahi baduzue, aurrera, zeren ez da ulertu esaten zena.

Presidente: Y además, si no queréis darla por aprobada y queréis revisar, porque es eso, que no se ha entendido lo que se decía.

Ibon Rodríguez: Kontua da... guk ez dugu esaten txarto egina, apropos egina edo dena delakoa... eta ez dugu inolako arazoa jartzea Aktari... orokorrean. Kontua da justu ikusen dugu dena ondo dagoenean, eta guk euskeraz hitzegiten hasten garenean, arazoak sortzen direla.

Ibon Rodríguez: El caso es que... nosotros no decimos que esté mal hecho, hecho a proposito o lo que sea... y no ponemos problemas al Acta... en genral. Lo cierto es que que justo vemos que cuando todo está bien y, cuando nostros empezamos a hablar en euskara, surgen los problemas .

Orduan, gure galdera... honela baldin bada... begiratu beharko da... zergaitik justu euskeraz hitzegiten dugunean arazoak sortzen diren... Edo itzulpena ez da ondo egin, edo guk txarto hitzegiten dugun, edo txarto grabatu da... Hori da esaten duguna. Etorkizunerako.

Entonces, nuestra pregunta... si es así... se tendrá que mirar... por qué justamente surgen los problemas cuando empezamos a hablar en euskara... Si la traducción no se ha hecho bien, o si hablamos mal nosotros o se graba mal... Eso es lo que decimos. Para el futuro.

Lehendakaria: barkatu, xehetasunak emateagatik. Aurrerago joaten bazara, Aktaren zati batean, Eduardo Andradek gazteleraz honela dio: *"Tú no quieres estar"*.... Eten-puntuak daude kakotxen artean, grabazioan ez delako ulertu zer esan den. Ez da gertatzen soilik zuk euskaraz hitz egiten duzunean; hor ere Eduardo gazteleraz

Presidente: Perdona, por puntualizar. Si vas un poco más adelante, hay una parte del Acta donde Eduardo Andrade dice en castellano *"Tú no quieres estar"*... hay unos puntos suspensivos entre comillas, porque tampoco se ha entendido en la grabación lo que se quería decir. No solamente es cuando hablas tú en

| | |
|---|---|
| ari da, eta ez zaio ulertzen. | euskera, sino que cuando habla Eduardo en castellano y tampoco se le entiende, entonces… |
| Lehendakaria: esan nahi dut ez dela arazoa, azkarregi hitz egiten dugunean, grabazioan batzuetan ez dela ulertzen, eta guri galdetzen digu, eta guk entzun eta, hala ere, ez. Egia esanda, ez naiz gogoratzen Zuzendaritza Batzordean hitz egiten den guztiaz. Horregatik egiten da akta. | Presidente: Quiero decir que no es un problema, que cuando hablamos demasiado rápido en la grabación, pues a veces quien transcribe no entiende, y nos pregunta a nosotros, y nosotros escuchamos, y tampoco… Pues, sinceramente, no me acuerdo de todo lo que se habla en un Consejo Rector. Por eso hay un acta. |
| Ibon Rodriguez: bale. | Ibon Rodríguez: Vale. |
| Lehendakaria: horregatik eskatu nahi dizuet, arazoa dugunez, lasaiago hitz egiten ahalegintzeko. | Presidente: Por eso yo sí os pido que ya que tenemos este problema pues que procuremos hablar con menos velocidad. |
| 149.- 204/2018KO LEHENDAKARITZA-EBAZPENA-REN KONTU EMATEA; HORREN BIDEZ, 325.000,00 €-KO KREDITUA EGOKITZEA ONARTU DA. | 149.- DACION DE CUENTA DE LA RESOLUCIÓN DE PRESIDENCIA Nº 204/2018, POR LA QUE SE APRUEBA UNA HABILITACIÓN DE CREDITO DE 325.000,00 EUROS |
| Lehendakaria: inbertsioaren amaiera duen ebazpena guztiok daukazuela uste dut. Fadura, Gobela eta Andra Mari kiroldegietan egindako jarduerei dagozkien inbertsioak dira, arropazaindegirako kirol-ekipamendua eta aplikazio informatikoak. | Presidente: Creo que tenéis todos la resolución con el fin de las inversiones, os resumo son las inversiones correspondientes a actuaciones en polideportivos en Fadura, Gobela y Andra Mari. el equipamiento deportivo para guardarropas y aplicaciones informáticas. |
| Faduran, mantentze-lanekin loturiko jarduera ezberdinak burutu dira, materiala, hesia eta gauza mordoa. | Las actuaciones sobre Fadura son diversas actuaciones vinculadas a mantenimiento, las inversiones en material, vallados y un montón de cosas. |
| Enrique Prada: Alvaro, orain azaltzen ari zarena xehetasun handiagoarekin ezagutzerik badugu, ezta? | Enrique Prada: Álvaro, se podrá conocer un poquito en detalle lo que estás explicando ahora, ¿no? |
| Lehendakaria: prestatu eta bidaliko dizkizuegu. Funtsean lau kontratu nagusi egin dira. Bata zaharkitutako zonak berritzekoa, Gobelako kiroldegiko pasilloko zorua; xehetasunak bidaliko dizkizuet. Orain ez naiz denaz gogoratzen, baina hainbat gauza egin dira inbertsio horiekin. | Presidente: Os los preparamos y os lo enviamos. Digo que básicamente son cuatro contratos principales grandes. Uno que es de restauración de zonas envejecidas, el suelo del pasillo del polideportivo de Gobela y os envío el detalle. No me acuerdo ahora mismo de todo, pero varias cosas que se han tocado con estas inversiones. |
| Enrique Prada: honela zehazten da… | Enrique Prada: Se concreta así.. |
| Aitor Miñambres: erabilitako kirolak… | Aitor Miñambres: Más deportivos utilizados.. |
| Enrique Prada: hori aski… | Enrique Prada: Eso suficiente… |
| Lehendakaria: bada, bidaliko dugu. | Presidente: Pues lo enviamos. |
| 150.- 247/2018KO LEHENDAKARITZA-EBAZPENA-REN KONTU EMATEA; HORREN BIDEZ, 130.000,00 €-KO KREDITUA EGOKITZEA ONARTU DA. | 150.- DACIÓN DE CUENTA DE LA RESOLUCIÓN DE PRESIDENCIA Nº 247/2018, POR LA QUE SE APRUEBA UNA HABILITACIÓN DE CRÉDITO DE 130.000,00 EUROS |
| Lehendakaria: Osoko Bilkuran onartutako diru-laguntza da, uretako kiroletarako. | Presidente: Es la subvención que se aprobó en el Pleno, para los deportes naúticos. |
| INFORMAZIO OROKORRA | INFORMACIÓN GENERAL |
| <u>Getxo 2020 Soka Tirako Munduko Txapelketa</u> | <u>Mundial Soka Tira Getxo 2020</u> |
| Lehendakaria: puntu honetan ez dut asko kontatzeko. Soilik, batzuek esan duzuen moduan, prentsan atera zela | Presidente: En este punto no tengo mucho que contar. Solamente que, como algunos que habéis comentado, |

Sokatirako Hegoafrikako Mundialean izan garela. Dakizuen bezala, 2020. urtean, Getxon Sokatirako Munduko Txapelketa egingo da; beraz, Ciudad del Caboko 2020ko Batzorde Antolatzailea bisitatu beharra genuen. Hainbat bilera egin ditugu TWIFeko Lehendakariarekin (Nazioarteko Federazioa) edota Batzorde Antolatzailearekin, zenbaterainoko maila eman beharrean gauden ere jakiteko. Konturatu gara benetako mundiala dela, ez 'etxean ibiltzeko' mundiala.

salió en la prensa que hemos visitado el Mundial de Sudáfrica de Sokatira. Como sabéis, en el año 2020 se celebra en Getxo el Mundial de Sokatira entonces, teníamos pendiente la visita de responder al Comité Organizador de Ciudad del Cabo 2020. Hemos tenido varias reuniones allí, tanto con el Presidente de la TWIF, que es la Federación Internacional, como con el Comité Organizador y también para ver un poco el nivel que estamos obligados a dar, y hemos observado que es un mundial de verdad, no es un mundial 'de andar por casa'.

GALDE-ESKEAK

RUEGOS Y PREGUNTAS

Lehendakaria: hemendik aurrera saiatuko naiz epe barruan sartu diren galderak hemen jartzen. Ni *Gai Zerrenda* bi egun aurretik bidaltzen ahalegintzen naizen moduan, zuek ikus dezazuen, zuek ere galderak horrela egitea gustatuko litzaidake prestatu ahal izateko. Nik, deialdiaren epean jasotzen ditudan galderak hemen sartuko ditut, eta erantzuteko konpromisoa hartuko dut; beranduago egindakoei erantzuten ahaleginduko naiz, baina ez dut horretarako konpromisorik hartuko.

Presidente: De ahora en adelante voy a intentar poner las preguntas que han entrada en plazo; porque al igual que yo trato de mandar dos días antes el *Orden del Día*, para que podáis verlo, pues a mí me gustaría también tener las preguntas con el mismo tiempo para poder prepararlas. Entonces, yo, las preguntas que reciba en el plazo de convocatoria las meteré aquí, y me comprometo a responderlas; y las que me vengan más tarde, haré la voluntad de responder, pero no me comprometo a ello.

Orduan, bi galderatatik, 26195 galderari dagokionarekin hasiko naiz.

Entonces, de las dos preguntas, comienzo con la correspondiente a la 26195.

Ibon Rodriguez: bi galdera ditugu. Bat erantzun badaiteke ere, gure ustez jada erantzunda dago gaiaren inguruan egindako informazio-batzordeetan, galdera horiek bereizita egin baikenituen aurreko kontseiluetan eta erantzunda daude.

Ibon Rodríguez: Tenemos dos preguntas, pero una se puede responder pero creemos que ya está respondida en otras comisiones informativas que ya se habló de este tema, porque hicimos estas preguntas por separado en los anteriores consejos y la damos por respondida.

Lehendakaria: orduan, erantzunda dagoela esango dugu, eta ondorengo galderari helduko diogu, 26197ri. Zuek irakurriko duzue?

Presidente: Entonces, la damos por respondida, y pasamos a la pregunta siguiente, 26197. ¿La leéis vosotros?

Ibon Rodríguez: *Maiatzaren 14an 162/2018 dekretuaren bitartez Getxo Kirolakeko presidenteari Karitte Alegria Mendazaren lan kontratua maiatzaren 25an bertan behera uzteko erabakia hartu zuen. Erabaki horren oinarrian ebazpen judiziala zegoen zeinak nabarmentzen zuen Karitte Alegria Mendazaren kontratazio prozesua legez kanpokoa zela. Ezin ahaztu aipatu kontratazio prozesua behin eta berriro salatu genuela oposizioko taldeok, aukera asko izan zituela presidenteak atzera egiteko baina ez zuela jaramonik egin. Legez kontrako erabakia izan zitekeela ohartarazita ere ez.*

El 14 de mayo mediante el decreto 162/2018 el presidente de Getxo Kirolak tomó la decisión de cancelar el 25 de mayo el contrato de Karitte Alegría Mendaza. En el fundamento de esta decisión estaba una resolución judicial que destacaba que el proceso de contratación de Karitte Alegría Mendaza era ilegal. No podemos obviar que los grupos de la oposición denunciamos repetidamente el proceso de contratación, que el presidente tuvo numerosas oportunidades de rectificar pero hizo caso omiso. Ni siquiera advertido de que podía ser una decisión contraria a la ley.

*Orain jakin izan dugu Karitte Alegria Mendazak, bere langile eskubideak indarrean jarriz, Getxo Kirolaken kontrako prozedura laburtua jarri duela Administrazioarekiko Auzietako Bilboko 5 epaitegian.*

Ahora hemos sabido que Karitte Alegría Mendaza, haciendo valer sus derechos laborales, ha interpuesto un procedimiento abreviado contra Getxo Kirolak en el juzgado número 5 de lo Contencioso Administrativo de Bilbao.

*Beraz, gauzak horrela, hauek dira argitu nahi ditugun galderak.*

Por ello, y así las cosas, estas son las cuestiones que queremos aclarar

- *Zer da Karitte Alegría Mendazak Getxo Kirolaki eskatzen diona?*

- ¿Qué es lo que pide Karitte Alegría Mendaza a Getxo Kirolak?

- *Zein da Getxo Kirolaken enkarguz udal zerbitzu juridikoek defendatuko duten jarrera?*

- ¿Cuál es la postura que defenderán los servicios jurídicos del ayuntamiento por encargo de Getxo Kirolak?

▪ *Zein izango da Getxo Kirolakeko presidentearen jarrera?*

▪ *Zein ondorio aurreikusten du Getxo Kirolakeko zuzendaritzak?*

▪ *Getxo Kirolak-erako balizko kalte ekonomikoak nork bereganatuko ditu?*

▪ *Epaitegiek arrazora ematen badiote Karitte Alegria Mendazari bere erantzunkizun politikoari erantzungo dio Getxo Kirolakeko presidenteak? Nola?*

Lehendakaria: beno, erantzuten hasiko naiz.

- Lehena. Soilik arazo bat egon zen sarrera-paragrafoaren inguruan. Getxo Kirolakeko lehendakariak ez zuen kontratua desegiteko erabakia hartu, baizik eta Getxo Kirolakeko lehendakariak epaia exekutatzeko erabakia hartu zuen. Eta epaia exekutatzea ez da kontratua deuseztatzeko erabakia hartzea. Nik epaia exekutatzeko erabakia hartu nuen, horri dagozkion ondorioekin.

- Hurrengoa. Zer du Karitte Alegriak? Irakurriko dizut. Ez naiz luzatuko, baina egiten dituen lau eskaera irakurriko ditut. Lehenik eta behin, Getxo Kirolaken Ebazpenaren deuseztasuna eskatzen du, alegatutako kausa objektiboa zuzenbidearekin bat ez datorrela ulertzeagatik; alegia, kontratuaren Ebazpenean jasotako epaia ez dator zuzenbidearekin bat, gutxienez plaza egin behar zen moduan estali arte. Bigarren, Karitte Alegria Mendazari onartzea lanpostuan jarraitzea, postu hori bete arte edo amortizatu arte, erakunde publikoari eskatzen baitzaio lehiaketa berria sustatzeko, prozeduraren xedeko lanpostua hornitzeko, eta subsidiarioki, administrazio-egintzaren deuseztasuna aitortzen ez bada, Getxo Kirolaki eskatzen zaio legez ezarritako prozedurako plaza hornitzea. Horiek dira eskatzen dituen lau gauza.

- Hurrengo galdera: zein jarrera defendatuko dute Zerbitzu Juridikoek? Zerbitzu Juridikoek defendatuko duten jarrera izango da, jakina, Justiziako Goi Epaitegian emandako epaia behar bezala gauzatu dugula.

- Zer-nolako jarrera hartuko du lehendakariak? Bera: Zerbitzu Juridikoena.

- Zer-nolako ondorioak aurreikusten ditu Getxo Kirolaken zuzendaritzak? Nire ustez, arrazoia emango digutenez, inolako ondoriorik ez.

- Eta gainerako galderei dagokienean, arrazoia emango digutela uste dudanez, ez dago inolako erantzunik. Beraz, epaia ateratzen denean, galderak egin ahal izango dizkidazue, Getxo Kirolaken aurkakoa bada. Baina bitartean... Nik uste dut ez dela aurkakoa izango.

▪ ¿Cuál será la postura del presidente de Getxo Kirolak?

▪ ¿Qué consecuencias prevé la dirección de Getxo Kirolak?

▪ Los posibles daños económicos para Getxo Kirolak ¿quién los conseguirá?

▪ Si los tribunales le dan la razón a Karitte Alegria Mendaza ¿corresponderá el presidente de Getxo Kirolak a su responsabilidad política? ¿Cómo?

Presidente: Bueno, pues voy respondiendo.

▪ Primero. Solamente hubo una cuestión sobre el párrafo introductorio. El presidente de Getxo Kirolak no tomó la decisión de rescindir el contrato, sino que el presidente de Getxo Kirolak tomó la decisión de ejecutar una sentencia. Y ejecutar una sentencia no es lo mismo que tomar la decisión de rescindir un contrato. Yo tomé la decisión de ejecutar una sentencia, con las consecuencias correspondientes.

▪ Siguiente. ¿Qué es lo que tiene Karitte Alegría? Pues te leo... no voy a extenderme, pero voy a leer las cuatro peticiones que realiza. En primer lugar, pide la nulidad de la Resolución de Getxo Kirolak, por entender que la causa objetiva alegada no es conforme a derecho, es decir, la sentencia aducida en la Resolución del contrato no es conforme a derecho, al menos hasta proceder con la cobertura de la plaza en la forma en que se debiera haber hecho. La segunda, que se reconozca a Karitte Alegría Mendaza la continuidad en su puesto de trabajo hasta la cobertura de dicho puesto, o a la amortización del mismo, que se insta a dicho ente público a la promoción de un nuevo concurso para la provisión de un puesto de trabajo objeto del siguiente procedimiento, y subsidiariamente, en caso de no declarar la nulidad del acto administrativo, se insta a Getxo Kirolak, a fin de que efectúe la provisión de la plaza del procedimiento legalmente establecido. Esas son las cuatro cosas que pide.

▪ Siguiente pregunta: ¿cuál es la postura que defenderán los Servicios Jurídicos? Pues la postura que van a defender los Servicios Jurídicos, obviamente, no puede ser otra que hemos ejecutado correctamente la sentencia que se ha dictado en el Tribunal Superior de Justicia.

▪ ¿Cuál va a ser la postura del presidente? Pues es que es la misma: la de los Servicios Jurídicos.

▪ ¿Qué consecuencias prevé la Dirección de Getxo Kirolak? Pues, como estimo que nos van a dar la razón, ninguna consecuencia.

▪ Y sobre el resto de preguntas, pues, como creo que nos van a dar la razón, es que no ha lugar... Entonces, cuando salga la sentencia, me podréis hacer estas preguntas, en caso de que sea en contra de Getxo Kirolak. Pero mientras tanto... Es que yo creo que no va a ser en contra.

Beste galderarik?

Ibon Rodríguez: Bai. Bakarrik... honekin lotuta... eskari bat egin genuen ere Txosten osoa ikusteko eskaria, eta ez dugu erantzunik jaso.

Lehendakaria: Bai, eskaera jaso dugu. Eta ez da erantzun bost egunetan, Udaleko Erregelamendu Organikoaren arabera. Eskatutako informazioa emango zaizue. Dagokion ofizioa egingo dugu, dokumentazioa prestatu eta bidaliko dizuete.

Enrique Prada: Bai, galdera pare bat baditugu.

Denok ondo dakigunez, kontratazio hori Guk Getxoren salaketa baten ondorioz izan zen; izan ere, salbuespenaren larrialdiaren motibazioarekin ados ez geunden, eta beste gauza batzuk ere proposatzen genituen. Epaiaren oinarria badirudi larrialdi-eza eta kontratazioaren salbuespena izan zirela. Oker ez banago, gainera, Kontu Hartzailetzak ere antzeko ikusten zuen.

Bi galdera egingo ditut. Lehena erantzunda bezala eman dezaket, aurrean esan duzunarengatik, baina honako hau litzateke: Getxo Kirolakentzat zer-nolako kostua izango luke langilearen aldeko epai hipotetikoak? Esan duzu ez duzula aurreikusten, orduan,

Lehendakaria: edonola ere, epaia dagoenean, kontrakoa bada, orduan ikusiko dugu zenbaterainokoa den.

Enrique Prada: eta bigarren galdera, beno, asko dira: Zergatik ez da sartzen langileak zuen postua LZn, lehiaketa publikora ateratzeko, duela urte pare bat 'ezohikotzat eta premia larrialdikotzat' jotzen bazen?

Eta beste galdera: 'larrialdi eta premia' hori desagertu egin da, edo, xaloki, Zuzendaritza Batzordeko kideei emandako argumentazioa gezurrezkoa al zen?

Lehendakaria: Berehala erantzungo dizut. Ez da faltsua eta larrialdia eta premia ere ez dira artifizialak. Garai hartan, besteak beste, premiazkoa eta larrialdikoa zen URAren obrak medio. URAren obrak amaitu dira. Eta beste arrazoietako bat Thinking Fadura prozesua zen; jada bi hilabete besterik ez zaizkio geratzen amaitzeko. Plantillan pertsona bati prozesuaz arduratzeko eskaera egin zitzaion, aparteko lan gisa, eta geratzen diren bi hilabete horietarako, horrela bukatuko dugu.

Enrique Prada: Bai, ulertu dut. Larrialdia eta salbuespena ikusi ziren prozesuaren obra medio; hori amaitu da, eta jada ez dago horrelakorik. Ados.

Enrique Olaso: azken aktako 14. orrialdean, Gobelako liburutegiaren instalazioen erabilerari dagokionean, esaten

¿Alguna cuestión más?

Ibon Rodríguez: Sí. Solamente...unido a esto... hicimos tambien una petición, la solicitud para ver el Informe completo, y no hemos recibido respuesta.

Presidente: Si, hemos recibido la petición... no respondida en contra en cinco días, según el Reglamento Orgánico Municipal. Se os trasladará la información que habéis solicitado. Haremos el oficio correspondiente, prepararán la documentación, y os la enviarán.

Enrique Prada: Sí, tenemos un par de preguntas.

Como bien sabemos todos, el asunto de esa contratación fue consecuencia de una denuncia de Guk Getxo, que, aparte de que tampoco compartíamos la motivación de la urgencia en la excepcionalidad, también planteábamos otra serie de cosas. El fundamento de la sentencia parece ser que fue motivada por esta falta de urgencia y de excepcionalidad en la contratación... cuestión que, si no me equivoco, también desde Intervención se veía de forma similar.

Voy a hacer una par de preguntas. Creo que la primera la puedo dar por contestada, por lo que has dicho... pero sería: ¿qué coste podría tener para Getxo Kirolak una hipotética sentencia a favor de la trabajadora? Has contestado que no lo prevés; entonces,

Presidente: Y, en todo caso, cuando haya una sentencia, si es contraria, veremos cuál es el alcance de la misma.

Enrique Prada: Y luego, la segunda pregunta, bueno, son varias ¿Por qué razón el puesto que tenía la trabajadora no se integra en la RPT, para sacarlo a concurso público, si hace un par de años se le suponía 'extraordinaria y de urgente necesidad"?

Y la otra que va a continuación sería: ¿ha desaparecido esa 'urgencia y necesidad', o simple y llanamente fue falsa esa argumentación dada a los miembros del Consejo Rector?

Presidente: Te voy a contestar rápido. Ni es falsa, ni la urgencia y la necesidad es artificial. La urgencia y la necesidad, en aquel momento, entre oras cosas, era por motivo de las obras de URA. Las obras de URA han finalizado. Y el otro de los motivos era el proceso Thinking Fadura, al que le quedan apenas dos meses para su finalización. Hay una persona de plantilla a la que se le ha pedido que hiciera el favor de hacerse cargo del proceso, con un trabajo extra para ella, y para estos dos escasos meses que quedan, terminaremos así.

Enrique Prada: Si lo he entendido. Se vio la urgencia y excepcionalidad en relación con la obra del proceso, eso se concluye y ya no se ve. De acuerdo.

Enrique Olaso: En la página 14 de la última acta, sobre el uso de las instalaciones de la biblioteca de Gobela,

da lehendakariak klubei eskatu ziela egingo zutenaren gaineko txostena prestatzeko. Nik ez dakit hemen esan zen, aktan irakurri dudan edo beste era batera esan zaidan... hori abuztuaren erdi alderako egongo zela, eta iritsitakoan, hori bai aktan agertzen dela, entregatuko zigutela, guk balorazioa egiteko.

se dice que el presidente les ha pedido a los clubes que preparen un informe de lo que van a hacer y que cuando yo no sé si se dijo aquí, o no sé si lo he leído en el acta, o si se me ha dicho de otras formas... que eso iba a estar hacia mediados de agosto, y que en cuanto llegara... eso sí que aparece en el acta... se nos entregará, para que lo valoremos.

Bilera hartan justifikatu zuten hau 2006an hartutako erabakitik zetorrela, baina inon ez da hori agertzen, eta berriro ere bilatzea eskatu nahi nuke edo... Une hartan, 2006ko erabaki hura gauzatu behar zela. Klubei eskatu omen zieten proiektu inklusibo bat egiteko. Eta konpromisoa hori izan zen zehazki, hori iritsiko zen.

Lo que se justificó en aquella reunión es que esto venía de una decisión de 2006, que no consta en ninguna parte, que vuelvo a pedir que se busque, o que... y que en este momento, lo que había que hacer era ejecutar esa decisión de 2006. Y que se había pedido a los clubes que hicieran un proyecto inclusivo. Y el compromiso fue ese en concreto, que eso iba a llegar.

Nire ustez, Zuzendaritza Batzordeak aztertu behar luke dokumentu hori edo eduki behar luke eta ikusi ea...

A mí me parece que es un asunto de Junta Rectora analizar ese documento o tenerlo, por lo menos, y ver si...

Lehendakaria: eta edukiko duzue. Klubekin hitz egin dugu, eta badakizue klubetako jendea ez dela profesionala, eta ezin zaiola epe zehatz bat ezarri, bakoitzak bere gauzak dituelako. Badakigu egiten ari direla, eta gure eskuetara iristean, zuei emango dizuegu.

Presidente: Y lo tendréis. Hemos estado con los clubes, y ya sabéis que la gente de los clubes no es profesional, y que por tanto no se le puede poner un plazo estricto, porque cada uno tiene sus cosas. Sí sabemos que están con él, y en cuanto lo tengamos nosotros lo tendréis vosotros.

Baina bistakoa da denbora librea eskaintzen duen jendeari ez diodala entregatzeko eperik jarriko. Esan diegu denboraldiaren hasierarako edukitzea gustatuko litzaigukeela.

Pero es evidente que a gente que dedica de su ocio, o tiempo, no le voy a poner un plazo de entrega. Les hemos pedido que para el comienzo de la temporada, que nos gustaría tenerlo.

Enrique Olaso: espazio publikoaren erabilera denez, noizbait *Gai Zerrendan* sartzea gustatuko litzaiguke, ekarpenak egin ahal izateko.

Enrique Olaso: Lo que nos gustaría es que, como se trata de la utilización de un espacio público, pues que fuera motivo de un punto del *Orden del Día* en algún momento, para poder hacer aportaciones.

Lehendakaria: nik ez daukat inolako arazorik nahi duzuena eztabaidatzeko. Baina Getxo Kirolakek konpromisoa 2006an hartu zuen.

Presidente: Yo no tengo ningún problema en que debatamos lo que queráis. Pero el compromiso de Getxo Kirolak está adquirido en el año 2006.

Beraz, nahi duzuena eztabaidatuko dugu. Horren gainean inolako arazorik ez. Eta behar den guztietan esan dut. Baina Getxo Kirolakek duen konpromisoa Getxo Kirolakek duena da, eta ez lehendakari honena.

Entonces, debatiremos lo que queráis. Sobre eso no hay ningún problema. Y lo he dicho todas las veces que ha hecho falta. Pero el compromiso que tiene Getxo Kirolak es el que tiene Getxo Kirolak. Y no es de este presidente.

Enrique Prada: lehen ahaztu zait gauza bat komentatzea. Orain ezin dut berretsi goizean informazio beraren eskaera erregistratzeko denborarik izan dugun, pertsona horren demandaren espedientearena. Eta une hau aprobetxatzen dut hori ere eskatzeko.

Enrique Prada: Alguna cosa que se me ha olvidado comentar antes. No puedo confirmar ahora si nos ha dado tiempo a registrar por la mañana la petición de la misma información, del expediente de la demanda de esta persona. Y para aprovechar este momento para solicitarlo, también.

Lehendakaria: gainerako taldeek demandaren kopia eduki nahi duzue?

Presidente: El resto de grupos está interesado en tener una copia de la demanda?

Lehendakariak egindako galderari bakarren batek baiezkoa erantzun dio.

A la pregunta formulada por el Presidente alguno de los presentes dice que si.

Enrique Olaso: beste gauza bat. Desgaitasunen bat duten pertsonek Getxo Kirolaken ikastaroetan izena emateko aukera izan edo ez izan dutenaren inguruan, eta etorkizunean ere aukera izatea; garrantzia apur bat baduela horrek iruditzen zait.

Enrique Olaso: Otra cuestión. Sobre la posibilidad de que personas con algún tipo de discapacidad se hayan podido apuntar o no a cursos de Getxo Kirolak, y que lo hagan o no en el futuro, me parece que es una cuestión de una cierta importancia.

Lehendabizi, orain arte egiterik izan dutenaren inguruan. Eta egiterik izango ote duten.

Primero, sobre si lo han podido hacer hasta ahora. Y sobre si lo van a poder hacer...

Lehendakaria: Nik uste dut Getxo Kirolakeko lehendakaria naizela duela 11 urte hasita. Ni iritsi baino lehen... esan nahi dut orain ez naizela ni hasiko 'tantoa niretzat' esaten... ez da inor geratu mugikortasun-arazoekin, dibertsitate funtzionalaren arazoekin, ez da geratu ikastarorik gabe. Gainera, orain Fadurako Lanbide Heziketako zentroan TAFAD (Kirol jardueren teknikaria) erdi mailako teknikariaren ikastaroa eskaintzen da, eta haiekin batera lan egiten dugu pertsona horientzat guztientzat laguntza izateko. Beraz, kanpoan geratu den norbait ezagutzen baduzu, mesedez, guregana etortzeko esaiozu.

Presidente: Yo creo que soy presidente de Getxo Kirolak desde hace 11 años ya. Desde antes de que llegara yo... o sea, quiero decir que tampoco me voy a apuntar yo a la fiesta esta del 'tanto para mí'... no ha habido nadie que haya venido con problemas de movilidad, con problemas de diversidad funcional, que se haya quedado sin los cursos. De hecho, ahora que en el centro de Fadura de Formación Profesional tiene el curso de técnico medio TAFAD (Técnico de Actividades Deportivas) trabajamos con ellos para tener apoyo para todas estas personas. Entonces, si conoces a alguien que se ha quedado fuera, por favor, que se dirija a nosotros.

Baliteke kanpoan geratu izana zozketarengatik, baina ez Getxo Kirolak zerbitzua emateko gai ez delako.

Pero se puede haber quedado fuera por sorteo no por incapacidad de Getxo Kirolak de prestarle el servicio.

Zozketatzen diren plazetan, norbaitek disfuntzio-arazoren bat izanez gero, laguntza ezartzen zaio.

Las plazas que se sortean si alguien tiene un problema de disfuncional, se le pone un apoyo.

Enrique Olaso: hori horrela da?

Enrique Olaso: ¿Es así?

Lehendakaria: bai. Teknikariak ziurta dezake.

Presidente: Es así. Lo puede certificar el técnico.

Gorka Zabala: eskola-igeriketan ikastetxeekin harremanetan jartzen gara, haurren batek desgaitasunen bat duen ikusteko, laguntza eskaintzearren.

Gorka Zabala: En natación escolar nos ponemos en contacto con los centros escolares, para ver qué niño o niña tiene alguna discapacidad para prestarle apoyo..

Enrique Olaso: pertsona helduekin?

Enrique Olaso: Con personas adultas.

Lehendakaria: pertsona helduekin ere bai.

Presidente: Con personas adultas también.

Gorka Zabala: bai, gauza bera.

Gorka Zabala: Lo mismo.

Enrique Olaso: Nik badakit pertsona batzuk etorri eta ikastaroetan ezin dutela izena eman esan zaiela. Badakit...

Enrique Olaso: Bueno, yo sé que ha habido personas que han ido, y se les ha dicho que no podían apuntarse a ninguno de los cursillos. Lo sé...

Lehendakaria: baina, zergatik geratu da kanpoan, zozketarengatik edo 'Ez zaizu egokitzen' esan diogulako?

Presidente: Pero ¿por qué se ha quedado fuera por el sorteo, o porque le hemos dicho 'No... le toca...?

Enrique Olaso: duen desgaitasunarengatik.

Enrique Olaso: No, por su discapacidad.

Lehendakaria: orduan, emazkidazu haren izen-abizenak, harremanetan jarriko gara eta egoera aztertuko dugu. Ezin dizut beste ezer gehiago esan.

Presidente: Lo que te pido es que me pases sus nombres y apellidos, nos ponemos en contacto con ellos, y analizamos la situación. Es que no te puedo decir otra cosa.

Enrique Olaso: badakit pertsona batek e-maila bidali duela eta beste bat aurrez aurre egon dela.

Enrique Olaso: Yo sé que una persona ha mandado un e-maila, y sé que otra persona ha ido presencialmente.

Gorka Zabala: bada, gehiago zehaztu beharko duzu.

Gorka Zabala: Pues como no especifiques más

Enrique Olaso: Nire ustez, aukera hori badagoen erantzun behar dugu, zehazki, desgaitasuna dutenentzat. Zeren horrela izango balitz, oinarrietan ere azaldu beharko luke desgaitasuna duten pertsonak... normalean, desgaitasuna duen jendea ez baita horrelako gauzetara joaten. Animatu egin behar dira. Horregatik, oinarrietan azaldu behar luke, orokorrean, desgaitasuna duten pertsonak artatuko direla edo zerbitzua edukiko dutela.

Enrique Olaso: A mí me parece que a lo que debemos dar respuesta es a si la posibilidad es así, en concreto, para los que tengan discapacidad. Porque si fuera así, debería aparecer incluso en las bases que las personas con discapacidad... porque, normalmente, la gente con discapacidad no va a estas cosas. Hay que animarlas. Entonces, debe aparecer en las bases, de forma general, que las personas que tengan discapacidad van a ser atendidas, o que van a tener un servicio.

Gorka Zabala: gaur bertan gertatutakoaren adibidea jarriko dizut. Ez dakit aipatzen duzun pertsona bera den ala ez. Pertsona bat etorri da eta esan du paralisia duen 14 urteko haurra duela, desgaitasun zehatza duela, eta helduen ikastaroan sartuko dugu, salbuespen gisa. Esan nahi dizut egokitu egiten garela, eta normalizatzen saiatzen garela, bakoitzak behar duen egoerara eta guk eman diezaiokegunera. Beste gauza bat da ikastaro batetik kanpo geratu dela edo desgaitasun zehatz bat duen pertsona batek x trebetasun motrizeak eskatzen dituen kirol bat egin nahi duela. Ikastaro eta jardueretan, behintzat, ez dut uste inor kanpoan geratu denik.

Gorka Zabala: Te voy a poner un ejemplo de hoy mismo. No sé si es la persona que dices o no. Ha venido una persona, y me dice que tiene una cría de 14 años que tiene una parálisis, que tiene una discapacidad muy concreta y vamos a hacer la excepción de meterla en un curso de adultos. Quiero decirte que se adapta, y que se intenta normalizar... depende de la situación de cada uno a lo que requiere, y a lo que nosotros podemos aportar. Otra cosa es que se haya quedado fuera de un curso, o que una persona con una discapacidad concreta quiera jugar a un deporte que requiere unas habilidades motrices equis. Pero en cursos y en actividades, creo que nadie se ha quedado fuera.

Enrique Olaso: Ondo. Besterik gabe. Gustatuko litzaidake nonbait zehaztea horrela egingo dela.

Enrique Olaso: Vale. Sin más... O sea... me gustaría que en alguna parte se concretara que así va a ser.

Aurtengo urtea izan dena izan da, eta ez duzu izena emango izena eman gabe zauden horretan. Baina aktan jasotzea nahi nuke, horrela bada, hemendik aurrera horrela izango dela dauden ikastaro guztietan.

Este año ha sido lo que ha sido, y no te vas a apuntar a lo que no estás apuntado. Pero me gustaría que conste en acta, si es así, que a partir de ahora va a ser así en todos los cursos que hay.

Gorka Zabala: niri begiratzen didazu eta txarto sentitzen naiz, badirudi eta teknikariok ez gaudela ez kontzientziatuta, eta ez ditugula pertsona horiek baloratzen; zailtasun hori ere badutela.

Gorka Zabala: Me miras a mí y me sienta hasta mal, porque da la sensación de que los técnicos no estamos ni concienciados ni estamos valorando a esas personas, que además tienen esa dificultad.

Enrique Olaso: nik ez dut hori esan, e?

Enrique Olaso: Yo no he dicho eso, ¿eh?

Gorka Zabala: gai horrekin bueltaka zabiltza duela urte eta erdi hasita. Gobelarekin hasi zinen; ez dugula kirol inklusiboa egiten, ez kirol egokitua. Nire ustez, eremu guztiak hartzen ditugu: kirol inklusiboa eta kirol egokitua, zeren jende batek ez du bere desgaitasuna normalizatu nahi. Eta badago beste jende bat oso gustura sentitzen dena desgaitasuna duen jendearekin kirola egiten. Eta niri iruditzen zait kontzientziatuta ez gaudela pentsatzen duzula. Eta, hain zuzen ere, guztiz bestela da.

Gorka Zabala: Llevas con este tema desde hace año y medio... entrando con Gobela, que no hacemos deporte inclusivo, que no hacemos deporte adaptado. Creo que tocamos todos los ámbitos: deporte inclusivo y deporte adaptado, porque hay gente que no quiere normalizar su discapacidad. Y hay gente que se siente más a gusto haciendo deporte con gente que tiene una discapacidad. Y creo que, a mí personalmente me da la sensación de que piensas que no estamos concienciados. Y es todo lo contrario.

Enrique Olaso: Ez, kasu honetan ez dut inoren judizio orokorrik egin. Datu bat eman dut, niri iritsi zaidana. Eta esan nahi dut, horrela jokatzen bada, hemendik aurrera, bedeinkatua izan dadila.

Enrique Olaso: No, en este caso no he hecho un juicio general de nadie. Lo que he hecho es aportar un dato que creo es... me ha llegado a mí... Y digo que si es así, a partir de ahora, pues bendito sea.

Lehendakaria: baina, Enrique, nor den esateko eskatzen dizut, harekin harremanetan jartzearren.

Presidente: Pero, Enrique yo te pido que nos digas quién es, porque nos ponemos en contacto con él.

Enrique Olaso: hori pertsonak ikusi beharko du.

Enrique Olaso: Pero eso será la persona...

Lehendakaria: baina zuk esatea badaukazu gurekin harremanetan jartzeko, haren egoera aztertzearren. Zozketa bidez kanpoan geratu bada gauza bat da, baina plaza egokitu eta ezin badugu artatzerik izan, hori beste bat da.

Presidente: Pero le puedes decir tú que se ponga en contacto con nosotros, para analizar su situación. Porque si se ha quedado fuera por sorteo es una cosa, u si le ha tocado una plaza, y no le hemos podido atender, es otra.

Enrique Olaso: Ez, ez da zozketa-kontua. Seguru.

Enrique Olaso: No, no es cuestión de sorteo. Seguro.

Gorka Zabala: gainera, Enrique, kontu horietarako, niri telefonoz deitu izan didazu, ezta? Bada, hau oraindik sentiberagoa da; aizu, 'pertsona bati hau gertatzen zaio' eta esan garbi.

Gorka Zabala: Además, Enrique, para esas cosas a mí me has llamado por teléfono, ¿no? Pues esto es todavía más sensible, pues oye, 'hay una persona que tal, tal, tal'... y no pasa nada.

Enrique Olaso: bai, horrela egingo dut.

Enrique Olaso: Así lo voy a hacer.

Beste galdera bat. Apirilean, izotzaren ondorioz Gobelako eguzki-panelak lehertu zirenean, ondoren konpondu egin ziren. Une honetan horiek nola daude?

Otra pregunta diferente. Cuando en abril estallaron por una helada, los paneles solares de Gobela, hubo una reparación posterior. ¿Cuál es la situación de eso en este momento?

Aitor Miñambres: une honetan, ia denak, hamar kenduta, konpontzen ari dira. Tartean uda igaro da, eta udan presa handiagoko gauzak egiten aritu gara, ur beroa bermatuta baitzegoen zeuden panelen bitartez.

Aitor Miñambres: La situación en este momento es que todos prácticamente, menos diez, estaban reparándose. En medio ha surgido el verano, y en el verano nos hemos dedicado a cosas que apremiaban más porque el suministro de agua caliente estaba garantizado con la disposición de paneles que había.

Enrique Olaso: alegia, une hartan, hogeita bostek egin zuten eztanda, ezta?

Enrique Olaso: O sea, en este momento estallaron veinticinco, ¿no?

Aitor Miñambres: ez dakit buruz zenbat ziren, baina badakit jakinarazi nizula. Hogeita bost lehertu eta konpondu egin ziren edo hogeita hamabost lehertu eta hogeita bost konpondu ziren eta beste hamar geratzen ziren konpontzeko. Badakit uztailean 10 zeudela konpontzeko.

Aitor Miñambres: No recuerdo de memoria la cantidad pero te la hice llegar. Estallaron veinticinco, y se repararon o estallaron treinta y cinco, y se repararon veinticinco, y faltaban diez. Recuerdo que faltaban diez en julio.

Enrique Olaso: konforme.

Enrique Olaso: Vale

Aitor Miñambres: eta arazoa ez zen ur beroarena; izan ere, uztailean ez zen beharrezkoa hainbesteko ekarpen energetikoa ur beroa lortzeko. Ez zen %100 behar ur beroa izateko. Une honetan ez dugu ur beroaren arazorik, eta ordezko piezak jasotakoan, aldaketa egingo dute.

Aitor Miñambres: Y no era un problema de agua caliente, es decir, en julio no hacía falta tanto aporte energético para conseguir agua caliente. No hacía falta el 100 % de la disponibilidad para conseguir el agua caliente. En este momento no tenemos problema de agua caliente, y en cuanto reciban los recambios, harán la sustitución.

Susana Andollo: barkatu, gure taldearen azken galdera da. Ikastaroei dagokienean, ez duzue zenbat jende ibili den eta antzeko informaziorik aurkeztu, baina nik jakin nahi nuke zenbat eskaera egin diren telematikoki. Zeren, gauzak erraztu ez dituzue egiten, Alvaro. Egia esanda, lehen ez bazegoen, orain, aukera telematikoak eskatzen du aurrez bulegora joatea goizetan. Niretzat, erabiltzaile gisa, hau iseka egitea da. Zeren aukera hori ez duzue eskaintzen ezta e-mailez ere, jende batek ezin baitu aurkeztu ordutegi horretan. Telematikoki egin behar bada eta bulegora joan beharra badago, batzuek, egia esanda, bertan egiten dute eta kito. Niretzat iseka egitea da. Datu horiek esku artean izatea gustatuko litzaidake, mesedez.

Susana Andollo: Perdona, es la última de nuestro grupo. Con respecto a los cursos, veo que no habéis traído información sobre cuánta gente,...pero yo estoy interesada en saber cuál ha sido el número de solicitudes que se han hecho telemáticamente. Porque, desde luego, fácil no lo ponéis, Álvaro. Sinceramente, si antes no lo había, ahora o sea, la opción telemática requiere el paso previo por la oficina por las mañanas. Para mí, como usuaria, esto es una burla. Porque ni siquiera ofrecéis esa opción vía... email... porque hay gente que no tiene horario para presentarse en esas franjas. Hay gente que para hacerlo telemáticamente, teniendo que pasar por la oficina, sinceramente, para eso ya haces la inscripción allí. Para mí, sinceramente, me parece una burla. Me gustaría tener esos datos, por favor.

Lehendakaria: Aurretiko kontu bat. Hori egia den egiaztatuko dut, inskripzio telematikoaren inguruan dudan lehen kexa baita.

Presidente: Una cuestión previa. Voy a comprobar si eso es cierto, porque es la primera queja que tengo sobre la inscripción telemática.

Eta bigarrena. Jendea artatzeko zerbitzua arratsaldez ere jartzeko ahaleginak egiten ari gara, eta zuek horren aurka bozkatu zenuten kontu hau hona ekarritakoan. Baina, tira, guztiok baliatuko gara horretaz, baita aurka bozkatutakoek ere.

Y segundo. Estamos tratando de poner en servicio vespertino la atención al público, y vosotros votasteis en contra cuando se trajo aquí. Pero bueno, disfrutaremos todos de él: también los que votan en contra.

Ibon Rodriguez: Nik, besterik gabe, gomendio bat egin nahi nuke. Ikastaroetan izena ematera joan nintzenean, liburuan ondorengoa jartzen zuen: bulegoa zehazki 14:30 arte zegoela irekita, eta langileek 14:00etan itxi zuten. Ez oso modu egokian, baina esan zuten haien ordutegia 14:00etan amaitzen zela, eta gero 14:30 arte geratu ziren lanean leihatila itxita. Beraz, atea 14:00etan ixten bada,

Ibon Rodríguez: A mí simplemente me gustaría hacer una recomendación. Cuando yo fui a inscribirme en los cursos, en el libro ponía lo siguiente: que la oficina estaba abierta hasta las 14:30 concretamente, y los trabajadores cerraron a las 14:00, no de buenas maneras pero dijeron que su horario finalizaba a las 14:00 y luego se quedaron hasta las 14:30 trabajando

hori jarri beharko luke, zeren jendearentzat nahasmendua sor liteke, kasu hartan bezala, jendea ilaran zain zegoelako. Besterik gabe, ordutegia ondo jarrita egotea gomendatzen dut.

dentro pero la ventanilla cerro, por lo tanto, debería compaginarse si la puerta se cierra a las 14:00 me gustaría que pusiera eso porque puede dar lugar a situaciones de confusión como las que ocurrieron de que la gente estaba hacienda cola y siumplemente era eso, una recomendación para que estuviera ese horario bien indicado.

Bakarrik hori: hurrengorako kontuan izateko orduak berdinak izan daitezela.

Solo eso: para la próxima tener en cuenta que las horas sean iguales.

Gorka Zabala: Artatzeko jendearen irteera-ordua… ordu bietan atera daitezke. Batzuetan gertatzen da batzuk bajan daudela eta oporrak dituztela, eta baliteke leihatilan bakarra egokitzea, eta ordu bietan joan daiteke. Hortaz, administrazio-lan hutsa egiten dute, ez artapena. Jarri dezatela ordu biak arte dela.

Gorka Zabala: El horario de salida de la gente de atención… puede empezar a salir a las dos. Entonces, como hay gente que algunas veces está de baja, o que tiene vacaciones, y puede que coincida uno solo en ventanilla, y se puede ir a las dos… por esa parte… hacen tarea administrativa pura y dura. O sea, no hacen atención. Pero que pongan hasta las dos.

Ibon Rodríguez: 'Ordu biak arte', y a correr.

Ibon Rodríguez: "Hasta las dos", y a correr.

Beste gairik gabe, saioari amaiera eman zaio akta honetako goiburuan aipaturiko eguneko 16:00ean.

Sin más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 16:00 horas del día mencionado en el encabezamiento de la presente acta.

Lehendakaria / El Presidente

Behin-behineko gerentea / Gerente accidental